

ZENTSUAK ETA BIZTANLERIAREN ESTADISTIKAK: Euskal Herriko datuak homologatzea

Euskal Herrian, bost biztanle okupatutatik hiru zerbitzuetan ari da

Euskal Herrian, 2001eko datuen arabera, hirugarren sektorean ari da lanean jende gehien (zerbitzuetan); gutxien, berriz, lehen sektorean (nekazaritzan, abeltzaintzan, arrantzan...). Bigarren sektorea (industria eta eraikuntza) indarra galtzen ari da, baina oraindik ere garrantzitsua da. Aurrerantzean, azalpenak ulergarriago egitearren, sektoreak honela izendatuko ditugu, hurrenez hurren: *nekazaritza, industria* eta *zerbitzuak*.

Bost biztanle okupatutatik hiru zerbitzuetan ari dira; bostetik bi baino zerbait gutxiago industrian; eta gainerakoak, hogeita hamabost okupatutatik bat baino gutxiago, nekazaritzan.

Zehazki, zerbitzuetan ari dira bost biztanle okupatutatik hiru (%61,6) eta nekazaritzan, berriz, hogeita hamabost okupatutatik bat (%3,0). Gainerakoak, ia bost okupatutatik bi (%35,4), industrian ari dira. Egun, Euskal Herrian biztanleria okupatua milioi bat lagunek baino gehiagok osatzen dute (1.213.233), eta zerbitzuetan ari dira ia 750.000 lagun, industrian 430.000 inguru, eta 36.000 inguru nekazaritzan.

(Ikus 1. grafikoa)

Biztanleria okupatua aintzat hartuta, beraz, zerbitzuen sektorea da egun euskal ekonomiaren ardatza, nahiz eta industrian ere jende asko ari den lanean; nekazaritzaren pisua, berriz, oso mugatua da.

Euskal Herria Europako Batasuneko¹ herrialde industrialena da. Biztanle okupatuen %35,4 ari dira lanean sektore horretan; Europako Batasunean, berriz, %29,0 ari dira

Europako testuinguruan, eta industrian ari diren langileen proportzioaren arabera betiere, Euskal Herria da Europako Batasuneko herrialde industrialena. Euskal industrian, biztanle okupatuen %35,4 ari dira lanean, eta portzentaje horrek sei puntutan gainditzen du Europako Batasuneko batez bestekoa (%29,0).

Euskal Herria da Europako Batasuneko herrialde industrialena; Europako batez bestekoa sei puntutan gainditzen du

Egungo Europako Batasunaren ezaugarri adierazgarrietakoa honako hau da: nekazaritza indarra galtzen ari da. Hamabost herrialdeak hartuta, biztanle okupatuen %10 baino gehiago nekazaritzan ari diren herrialdeak bi baino ez dira, 2000. urteko datuen arabera: Grezia (%17,0) eta Portugal (%12,5). Ildo beretik, beste bostek baino ez dute gainditzen Europako Batasuneko batez bestekoa (%4,3): Irlandak, Espainiako Estatuak, Finlandiak, Austriak eta Italiak. Euskal Herriak, batez bestekorik txikienetakoa du (%3,0). Bost herrialdek baino ez dituzte Euskal Herriak baino langile gutxiago nekazaritzan.

Nekazaritzan ari diren euskal herritarren ehunekoa Europako Batasuneko txikienetakoa da, baita zerbitzuetan ari direnena ere

Zerbitzuen sektorean ari diren euskal langileen portzentajea ere (%61,6) egungo Europako Batasuneko txikienetakoa da. Portugalgoa (%52,6) eta Greziakoa (%60,5) soilik gainditzen ditu Euskal Herrikoak, baina batez besteko handienak dituzten herrialdeetatik oso urrun gelditzen da: Luxenburgo (%76,8) eta Herbehereak (%75,2).

(Ikus 2. taula eta 3. grafikoa)

¹ Euskal Herriko datuak 1999. eta 2001. urtekoak direnez (ikusi www.datutaldea.net -en Metodologia Oharrak), Europarako 2000. urteko datuak erabili ditugu. Ondorioz, garai horretan Europako Batasuneko kide ziren 15 Estaturen datuak jasotzen dira. Ez dira jasotzen, beraz, 2004. urtean Europako Batasuneko parte izatera pasa ziren 10 estatuen datuak.

Azken 25 urteotan, Euskal Herria gizarte industrialia izatetik zerbitzuen gizarte izatera igaro da

XIX-XX. mendeetan, Euskal Herrian industrializazio prozesu indartsua gertatu zen, eta tradizionalki nekazaria izan zen ekonomia eraldatu zuen. XX. mendearen bukaeran zein XXI.aren hasieran, berriz, industriak indarra galdu du, eta zerbitzuen sektorea gero eta leku handiagoa hartzen ari da. Horren erakusgarri, orain arte esandakoa: egun, zerbitzuen sektorean ari dira euskal herrialde guztietako biztanle okupatu gehienak.

Bere garaian industria nekazaritzari gailendu zitzaion bezala, azken hamarkadetan mendebaldeko gizartearen hirugarren sektorea nagusitzen ari da, baita Euskal Herrian ere


Zehazki, sektore ekonomikoek azken 25 urteetan izan duten bilakaera aztertzen badugu, bakoitzean lanean ari diren biztanleen arabera, bi gauza azpimarratu ditzakegu: alde batetik, nekazaritzak 1975. urtean jada pisu txikia zuela, eta galtzen jarraitu duela etengabe. Eta, bestetik, argi ikusten da industriak euskal ekonomian zuen nagusitasuna galdu duela, zerbitzuen mesedetan.

Joerak argiak dira, gainera, sektore bakoitzaren bilakaera aztertzen bada: 1975. urtean, biztanle okupatuen %38,5 ari ziren zerbitzuetan; egun, %61,6 ari dira. Industrian, aldiz, %53,2 ari ziren orduan, eta egun, %35,4. Nekazaritzan, azkenik, 1975. urtean jada okupatu gutxi ari ziren (%8,3), eta egun orduko erdira ere ez dira iristen (%3,0).

(ikus 4. taula eta 5. grafikoa)

Taula eta grafikoak

1. Biztanle okupatuak, lan egiten duten sektore ekonomikoaren arabera. Euskal Herria, 2001 (%)



Iturria: **Euskal Herriko Datu Talaia**. Biztanleria Zentsuak eta Biztanleriaren Estatistika (INE, INSEE)
* Oharra: Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira.

2. Biztanle okupatua, lan egiten duten sektore ekonomikoaren arabera. Euskal Herria eta Europako Batasuneko estatuak, 2001*


Eremua	Urtea	Okupatuak (000)	Nekazaritza (000)	Industria (000)	Zerbitzuak (000)	Okupatuak (%)	Nekazaritza (%)	Industria (%)	Zerbitzuak (%)
Alemania	2000	36.325	958	12.180	23.187	100,0	2,6	33,5	63,8
Austria	2000	3.683	223	1.106	2.354	100,0	6,1	30,0	63,9
Belgika	2000	4.121	79	1.064	2.978	100,0	1,9	25,8	72,3
Danimarka	2000	2.707	99	686	1.922	100,0	3,7	25,3	71,0
Erresuma Batua	2000	27.638	424	7.024	20.190	100,0	1,5	25,4	73,1
Espainiako Estatuak	2000	14.449	992	4.446	9.011	100,0	6,9	30,8	62,4
Europako Batasuna (15)	2000	157.735	6.767	45.668	105.300	100,0	4,3	29,0	66,8
Euskal Herria	2001	1.213	36	430	747	100,0	3,0	35,4	61,6
Finlandia	2000	2.362	147	660	1.555	100,0	6,2	27,9	65,8
Frantziako Estatuak	2000	23.379	971	6.152	16.256	100,0	4,2	26,3	69,5
Grezia	2000	3.946	671	888	2.387	100,0	17,0	22,5	60,5
Herbehereak	2000	7.338	240	1.582	5.516	100,0	3,3	21,6	75,2
Irlanda	2000	1.656	130	476	1.050	100,0	7,9	28,7	63,4
Italia	2000	20.930	1.095	6.653	13.182	100,0	5,2	31,8	63,0
Luxenburgo	2000	181	4	38	139	100,0	2,2	21,0	76,8
Portugal	2000	4.898	614	1.708	2.576	100,0	12,5	34,9	52,6
Suedia	2000	4.123	120	1.005	2.998	100,0	2,9	24,4	72,7

Iturria: **Euskal Herriko Datu Talaia**. Biztanleria zentsuak, Biztanleriaren Estatistikak eta Biztanleriaren datuak (INE, INSEE eta EUROSTAT)

*Oharra: Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako biztanleriaren datuak 1999koak dira. Europako Batasuneko herrialdeetako datuak 2000. urtekoak dira; beraz, ez da biltzen Europako Batasunean 2004. urtean sartu ziren 10 estatuen daturik.

3. Biztanleria okupatua, lan egiten duten sektore ekonomikoaren arabera. Euskal Herria eta Europako Batasuneko estatuak, 2001*(%)

Iturria: **Euskal Herriko Datu Talaia**. Biztanleria zentsuak, Biztanleriaren Estatistikak eta Biztanleriaren datuak (INE, INSEE eta EUROSTAT)
*Oharra: Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako biztanleriaren datuak 1999koak dira. Europako Batasuneko herrialdeetako datuak 2000. urtekoak dira; beraz, ez da biltzen Europako Batasunean 2004. urtean sartu ziren 10 estatuaren datuak.



4. Biztanleria okupatuaren bilakaera, lan egiten duten sektore ekonomikoaren arabera. Euskal Herria, 1975-2001*


Urtea	1975	1991	2001	1975	1991	2001
	Kop.	Kop.	Kop.	%	%	%
Nekazaritza	77.011	45.673	36.322	8,3	4,6	3,0
Industria	494.840	424.621	429.633	53,2	42,3	35,4
Zerbitzuak	357.563	532.480	747.278	38,5	53,1	61,6
Okupatuak	929.414	1.002.774	1.213.233	100	100	100

Iturria: **Euskal Herriko Datu Talaia**. Biztanleriaren zentsuak, Biztanle Erroldak eta Biztanleria Estatistikak (INE, EUSTAT eta INSEE)

*Oharra: 1975. urterako Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako datuetan sailkatu gabeak kanpoan utzi ditugu, eta datuek ez dute ematen Trebifuren, Argantzunen eta Villaverde Turtziozen berri. 1991 urterako, Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1990 urtekoak dira eta 2001 urterako 1999koak.

5. Biztanleria okupatuaren bilakaera, lan egiten duten sektore ekonomikoaren arabera. Euskal Herria, 1975-2001* (sektore bakoitzean ari direnen %ak)

Iturria: **Euskal Herriko Datu Talaia**. Biztanleriaren zentsuak, Biztanle Erroldak eta Biztanleria Estatistikak (EUSTAT, IEN eta INSEE)
*Oharra: 1975. urterako Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako datuetan sailkatu gabeak kanpoan utzi ditugu, eta datuek ez dute ematen Trebiñuren, Argantzunen eta Villaverde Turtziozen berri. 1991 urterako, Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1990 urtekoak dira eta 2001 urterako 1999koak.



- Prentsa ohar hau egiteko erabilitako datu guztiak helbide honetan aurkituko dituzu:

WWW.datutalaia.net

- **Datu Talaiak, Gaindegiako Estatistika Sailak**, Espainiako eta Frantziako estatueta azken zentsuetan (2001 eta 1999ekoak, hurrenez hurren) oinarrituta egindako homologazio estatistiko lanaren emaitza dira datu horiek. Lehen aldiz, Euskal Herri osoko ikuspegia eskaintzen da. Euskal Herriko datuak lortzeko egindako prozeduren berri jakiteko, ikus web orriko "Iturriak eta metodologia oharrak" txostena.
- **Jatorrizko datuak:** Biztanleria zentsuak eta Biztanleriaren estatistikak (EUSTAT, INE eta INSEE). Europako estatueta datuak: EUROSTAT.

Argibide gehiagorako edo Prentsa Ohar zaharrak kontsultatzeko:

Euskal Herriko Datu Talaia

www.datutalaia.net